Kalean antzezteko idaztea

Norbaitek ikusi al du kaleko ikuskizun baten antzezleez at zein zen konpainiaren izena, eta, gainera, ikusikizunaren egilea nor den?

Ikuskizun guztietan bezala, estruktura dramatikoa, gidoia, istorioaren garapena, estetika , funtzezkoak dira kale-ikuskizunetan ere. Baina, oso oso gutxitan jakiten dugu autorea nor den.

Europan, ohikoak ez diren idatzietaz normaltasunez hitzegiten da, bai testua dutenak edo ez dutenak. Ikuskizun guztiak norbaitek sortu ditu, autore bat edota asko daukate, eta idatzi horrek antzezteko behar duen beharrezko elementu guztiak izan behar ditu, testua daukan edozein lan bezala. Kasu askotan idatzi hori bat-batean egiten da, beste batzutan aldiz, ikuskizuna sortzen doan einean osatzen da. Baina badago beste aukera bat: pentsatu, erreflexionatu eta idatzi. Kasu honetan, kalean antzezteko idazten da.

Prozesu honetan, mota honetako ikuskizunen idatzietan oinarrizko bi xede ez liratezke ahaztu behar:

- Lehenik, espazioaren berezitasuna kontutan izan behar da, eta baita egiten den kontestuan ere: Kalea, espazio publikoa, honek dakarren alderdi positibo eta negatiboekin.
- Bigarrenik, zuzendua dagoen jendeari: sarrera ordaindu ez duten ikusleak, formazio kultural eta artistiko desberdinak diztutenak, adin desberdinetako ikusleak, batzuk ikuskizuna ikustera joan diren arren beste batzuk ikuskizunarekin topo egin dutenak dira.

Guzti hau kontutan izanda, kalerako idatziek, hau lortu beharko lukete:

- Lehenengo, espazioa eta publikoa bat egiteko ikuspegi egoki bat.
- Bigarrenik, zuzendua dagoen jendeari ikuspegi desberdinak sortarazteko gai izatea.

Kalerako ikuskizun batetarako estruktura dramatiko bat lortzea, askotan , zaila eta konplexua da, eta sarritan esperimentazio etapak behar ditu lortu ahal izateko. Dramaturgia baten garapenerako esperimentazio eta bilaketa hau egiteko, denbora eta baldintza materialak beharrezkoak dira.

Baldintza guzti hauek, ez dira kontutan hartzen ikuskizunen produkzio prozesuan, idatzia bera, alde batera uzten da, produkzioak dakarren presioagatik, banaketa edota beste edozein lanagatik.

“Kalerako idaztea” zaila eta ez-ohikoa da. Baina aldi berean behar beharrezkoa da, elementu honi, ikuskizun batek daukan beste atalen (argiztapena, jantziak..) errespetu bera ematea.

DATA, IRAUPENA ETA LEKUA

2014ko apirilak 29- 9:00tik 14:00etara(kaferako tartea) Kultur Leioan, 4 solairun prentsa gelan

HIZLARIA:

Pierre Berthelot (Compagnie Generik Vapeur Zuzendaria)

HARTZAILEAK: Antzerkigintza, antzerki gidoi edo arte eszenikoen edozein esparruko profesionalak.

SARRERA eta HELBURUAK:

Tailer teorikoaren ideia: hizlari eta ikaslegoaren artean egoera bat sortu, zeinaren bidez Euskadin eta Estatuan kale arteek bizi duten unea islatu ahal den.

Frantzian dituzten errekurtso eta metodoen ikuspegi praktikoa.

EGITARAUA:

- Sarrera teorikoa eta frantziar funtzionamenduari buruzko azalpenak.
- Exenplu praktikoak eta Europako egoeraren azterketa.

Salneurria

10€

Antolatzaileak

Laguntzaileak